

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteizen emana, 2003ko abenduaren 22a.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Zk-7117

8/2003 LEGEA, abenduaren 22koa, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarena.

Eusko Legebiltzarrak ondoko legea onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei.

ABENDUAREN 22KO 8/2003 LEGEA,
XEDAPEN OROKORRAK EGITEKO
PROZEDURARENA

ZIOEN ADIERAZPENA

I

Xedapen orokorren sorkuntzak berebiziko garrantzia hartu du azkenaldi honetan, Administrazioak gizarte-ko bizitzaren arlo guztietan esku hartzeak eragiten duen arau-ugaritasunagatik eta era bateko eta besteko egoera eta gizarte-harremanetan egunero eragiten duten arauen zailtasunagatik. Arau horiek guztiak sortzeko prozedura antolatu egin behar da: lehen-lehenik, hala eskatzen duelako gizabanakoen eta gizabanakoak kide diren gizataldeen eskubideen begiruneak; orobat, herri-aginteen egintza guztiek erabat Legearen eta Zuzenbidearen pean egon behar dutela dioten zuzenbidearen printzipioek hala eskatzen dutelako; eta, azkenik, baita eraginkortasun-arrazoiengatik ere. Izan ere, eskubide horien begirune hori eta Legearen eta Zuzenbidearen pean erabat egon behar hori ez dira beteko arauak beren helburuak iristeko egoki ez badira edo helburu horiek era eskasean iristen badituzte.

Arau juridikoen sorkuntzaren gaineko doktrinaren azterlanetan behin eta berriro esaten da gizarte-errealitatea eta arau horien gaiak izango direnak sakon ezaugutu behar direla, arauak sortzeko. Ezaguera horretan oinarrituta baino ezin da baloratu indarrean diren arauak aski diren eta egokiak diren errealitate hori behar bezala eta zuzentasun materialaren irizpideen ara-

Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Dada en Vitoria-Gasteiz, a 22 de diciembre de 2003.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Nº-7117

LEY 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

Se hace saber a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente Ley

LEY 8/2003, DE 22 DE DICIEMBRE, DEL
PROCEDIMIENTO DE ELABORACIÓN DE LAS
DISPOSICIONES DE CARÁCTER GENERAL

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

I

La elaboración de disposiciones de carácter general ha ido adquiriendo en los últimos tiempos una importancia capital, dado el aluvión normativo provocado por la intervención pública en todas las esferas de la vida colectiva y la complejidad de las regulaciones que diariamente inciden en una enorme variedad de situaciones y relaciones sociales. La necesidad de ordenar el procedimiento que da vida a todas esas normas obedece, en primer lugar, a las exigencias que impone el respeto a los derechos de los individuos y de las formaciones sociales en que se integran. Responde, asimismo, a los principios jurídicos que garantizan el pleno sometimiento de todos los actos que emanan de los poderes públicos a la Ley y al Derecho, y, por último, a razones de eficacia. Pues ni aquel respeto ni este sometimiento se cumplen si las normas que deben observarlos resultan inadecuadas para lograr sus fines o lo hacen de manera deficiente.

Es una constante en los estudios doctrinales sobre la producción de las normas jurídicas la insistencia en que su elaboración se ha de sustentar en un conocimiento profundo de la realidad social y de las materias objeto de las mismas. Sólo a partir de tal conocimiento es posible valorar la suficiencia y adecuación de las normas vigentes para ordenar satisfactoriamente y con arreglo

bera eratzeko; eta, orobat, horrela baino ezin dira arau berriak sortu, indarrean diren arauak hobetu behar diren edo horien ordeze beste arau egokiago, ulergarriago eta gauzagarriago batzuk eman behar direnean.

Horrela, bada, berebiziko garrantzia du gai honek garurko gizarteetan. Kontua ez da teknika juridikoa zuzen erabiltze hutsa, xedapenek duten eginkizunari berari eragiten baitio, herri-agintean jarduera arautu, gizarte-harremanak antolatu eta gizatalde ugari eta askotarikoei ematen zaizkien era guztietako zerbitzuak bermatzen dituzten xedapenen eginkizunari, alegia. Beraz, Zuzenbidearen beraren arau-izaerari, elkarbizitza eraginkortasunez antolatzeko eta benetakoa beharriaren erantzuna emateko duen gaitasunari eragiten dio.

Beste alde batetik, xedapen orokorren sorkuntzan, eta ez legearen forma hartzen duten xedapenen sorkuntzan bakarrik, badago tarte bat erabaki politikorako, edo, zehatzago esate aldera, arauen osaera aukeratzeko nolabaiteko askatasuna. Tarte hori zabalagoa edo estuagoa izatea jokoan diren interesak neurtzeko beharriaren arabera goragoko arauak uzten duten tartearen baitan dago. Legeen kasuan, jakina, zabalagoa da tarte hori. Aukera politikoen askotarikotasunak eskatzen du hori, eta horrexek ematen du bidea Legebiltzarrean gauzatzen den jendaurreko eztabaidarako. Hala ere, Legebiltzarrean ordezkaturata dauden jarreraren arteko eztabaida egin ahal izango bada eta eztabaida horrek gizarteak eskatzen duen emaitza emango badu, lan bat egin behar da aurretik, ekimen bakoitza gehien-gehienetan, Gobernuarena izan ohi da ekimen hori sustatzen duen legegintza-aukeraren funtsa ahal den neurrian zedarritu eta bideratze aldera, eta legegintzarako aukera hori lege bihurtu eta indarrean sartzeak eragingo duen kostua neurtze aldera.

Erregelamenduen kasuan, agerikoa denez, tarte hori ez da hain zabala; hala ere, erregelamendu bat egiteko erabakia hartzerakoan, hura onartzeko eskumena duen organoak kontuan hartu behar ditu, alde batetik, arauketa-aukera guztiak, baita aukera horiek antolamendu juridikoari egokitzen zaizkion aztertze txosten juridiko eta teknikoak ere, eta aukera horiek gauzagarriak diren ere bai. Eta, bestetik, kontuan hartu behar du arau horrek xede duen errealitatean eragiten duten gainerako erakundeen iritzia; horrez gain, arauak ukituko dituen gizarte-sektoreak ordezkatzeko dituzten pertsona edo erakundeei entzun egin behar die.

Urrats horiek guztiak eginez, hau lortu nahi da: egingo diren arauak oinarri objektibo bat izan dezatela, teknika juridiko egokiaren arabera eman daitezela eta gizarteak onets ditzala.

Nola pentsakera liberalak erregearen absolutismoa irauli eta legearen funtsa erregearen kontrolik gabeko nahi hutsetik atera eta arrazoian ezarri zuen (nec voluntas sed ratio facit legem), hala, gure egunotan, ezinbestekoa da arau juridikoen arrazoizkotasuna indartzea: horretarako, arauen antolatze-eginkizuna, ulergarritasuna

a criterios de justicia material dicha realidad y concebir y elaborar las regulaciones que hayan de mejorarlas o sustituirlas por otras más adecuadas, inteligibles y factibles.

Se trata, por lo tanto, de una cuestión de gran trascendencia en las sociedades contemporáneas. No se reduce a un mero problema de correcta utilización de la técnica jurídica, sino que afecta a la propia función que han de cumplir las disposiciones que rigen la actividad de los poderes públicos, organizan las relaciones sociales y garantizan las prestaciones de toda índole que se satisfacen a múltiples y variados colectivos sociales. Afecta, por lo tanto, a la normatividad misma del Derecho, a su capacidad para organizar eficazmente la convivencia y dar respuesta a las necesidades reales.

Por otra parte, la elaboración de las disposiciones de carácter general, y no sólo las que revisten forma de ley, implica un cierto margen de decisión política, o, por ser más precisos, de libertad de configuración normativa. Su amplitud depende del espacio que ofrezcan las normas superiores en función de la necesidad de ponderación de los intereses en juego. La apertura es lógicamente mayor en el caso de las leyes. Así lo exige el pluralismo político, y así se hace posible el proceso de discusión pública que se desarrolla en el Parlamento. Pero para que las distintas posiciones que allí están representadas afronten el debate y culminen su discusión con el acierto que demanda la sociedad es precisa una labor previa que acote y oriente en lo posible el fundamento de la opción legislativa que anime cada iniciativa, que en la inmensa mayoría de los casos proviene del Gobierno, y, también, que evalúe el coste de su puesta en vigor.

En el supuesto de los reglamentos la apertura es, obviamente, menor, si bien la adopción de la decisión normativa hace necesario, de un lado, que el órgano con competencia para aprobarlos tenga en cuenta las diferentes alternativas de regulación, los informes jurídicos y técnicos sobre su acomodación al ordenamiento jurídico y las perspectivas de su factibilidad. De otro, le obliga a tener en cuenta la opinión de las demás instituciones que operan sobre la realidad a la que se dirige la norma y dar audiencia a las personas o entidades representativas de los sectores sociales afectados.

A través de toda esa secuencia se procura que las futuras normas se asienten en un fundamento objetivo, se formulen con una técnica jurídica adecuada y obtengan una respuesta favorable de la sociedad.

Así pues, del mismo modo que el pensamiento liberal invirtió los términos del absolutismo regio y fundamentó la Ley en la razón y no en la desnuda voluntad incontrolada del monarca (nec voluntas sed ratio facit legem), en nuestro tiempo es imprescindible reforzar la racionalidad de las normas jurídicas, incorporan-

eta zati diren antolamendu juridikoko printzipio eta arauetikiko koherentzia errazte eta legitimatze aldera, araugintza berez den gogoeta-prozesu horretara behar beste osagai eta erakundeen eta gizartearen behar adina parte-hartze ekarri behar dira. Horrela bermatzen dira segurtasun juridikoa eta antolamenduaren eraginkortasuna, eta saihesten arauen neurrigabeko ugaritzea eta behar ez diren eta balio ez duten xedapenen gehitzea.

II

Azaldutako ideia horiekin bat eginez, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideek xedapen orokorrek egiteko jarraitu beharreko administrazio-prozedura arautzen du lege honek, Gernikako Estatutuaren 10.2 artikulua (autogobernatzeko erakundeen antolamendu, erregimen eta funtzionamendua) eta 10.6 artikulua (Euskal Autonomia Erkidegoaren Zuzenbide substantibotik eta berezko antolaketaren berezitasunetik datozen administrazio-prozedurako arauak) emandako eskumena erabiliz. Beste alde batetik, eskumenaren funtza bikoitz izate horrexegatik, eta kontuan izanik EAEk, zenbait arlotan, lurralde historikoetako foru-erakundeekin partekatzen duela araugintza-eginkizuna, Eusko Legebiltzarra da, autonomia-antolamenduan, herri-administrazioen araubide juridikoaren guztientzako printzipioen gaineko eskumena duena, eta horrexegatik forudiputazioak, beren antolaketa-, araubide- eta jardunbide-arau berezkoekin bat etorritik, xedapen orokorrek egitera doazenean, lege honetan ezarritako printzipioen pean egongo dira, beren arau horien berezitasun formal eta materialen arabera.

Honen aurrekaria da 1980ko urriaren 13ko Dekretua, gai honetan ezarritako ohiko araubidean txertatzen dena; haren bidez ezarri zen lege-egitasmoak egiteko eta Eusko Jaurlaritzak onartu beharreko dekretuak egiteko barne-prozedura. Xedapen hori tresna gisa erabiltzeko eman zen, ez beste ezertarako, eta denborarekin atzeratua gelditu da, nahiz eta badituen zenbait arau oraindik ere baliagarri direnak. Era berean, Jaurlaritzaren Legeko —ekainaren 30eko 7/1981 Legea— VII. tituluko II. eta III. kapituluetan ezarritako araubidea ere kontuan hartu da, lege horrek oraindik ere indarrean baitirau, lege honek aldatzen ez dituen zenbait gai substantibo arautzen dituen gero; hain zuzen ere, beste lege horretan xedatutakoa betetzeko beharrezkoa den izapideen segida antolatzen du lege honek.

Lege honek xedapen orokorrek egiteko prozedura arautzen du, eta xedapen orokor horien baitan sartzen dira hala erregelamenduak egiteko ekimenak nola lege-aurregitasmoak. Bi arau-mota horiek batera arautzeari egoki iritzi zaio, nahiz eta antolamendu juridikoan ez dauden maila berean, eta nahiz eta, legeak egiteko orduan, berez legegintza-ekimena denaren aurreko fasea baino ez den sartzen administrazio-prozedura-

do al proceso de reflexión que supone la elaboración de las mismas cuantos elementos y cuanta participación institucional y social contribuyan a facilitar y legitimar su función ordenadora, su inteligibilidad y su coherencia con los principios y las reglas que forman el orden jurídico en el que se insertan. De ese modo se garantiza la seguridad jurídica y la eficacia del ordenamiento y se evita la inflación normativa y la proliferación de disposiciones innecesarias e inútiles.

II

De acuerdo con las ideas expuestas, esta ley regula el procedimiento administrativo de elaboración de las disposiciones generales por las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma, en un ejercicio competencial en el que confluyen los títulos derivados del artículo 10.2 del Estatuto de Gernika (organización, régimen y funcionamiento de sus instituciones de autogobierno) y del artículo 10.6 (normas de procedimiento administrativo que deriven de las especialidades del Derecho sustantivo y de la organización propia del País Vasco). Esta doble naturaleza del fundamento competencial induce, por otra parte, teniendo en cuenta que la función normativa en la CAPV tiene espacios compartidos con los órganos forales de los respectivos territorios históricos, a la recepción común por el Parlamento Vasco en el ordenamiento autonómico de los principios que informan el régimen jurídico de las Administraciones públicas, lo que fundamenta la sujeción de las Diputaciones forales cuando elaboren disposiciones generales, de acuerdo con sus propias normas de organización, régimen y funcionamiento, a los principios que se infieren de esta ley, en función de las especificidades formales y materiales que caracterizan sus normas.

Se toma como antecedente la disciplina tradicional de esta materia en la que se insertó el Decreto de 13 de octubre de 1980, mediante el que se estableció el procedimiento interno de elaboración de los proyectos de ley y de los decretos que habían de ser aprobados por el Gobierno Vasco. Una disposición meramente instrumental que ha quedado superada por el tiempo, pero que contiene algunas previsiones que siguen siendo útiles. Asimismo, se tiene en cuenta la disciplina establecida en los capítulos II y III del título VII de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, cuya vigencia se mantiene dado que versa sobre aspectos sustantivos que no son alterados por esta ley, que se ocupa precisamente de ordenar la sucesión de trámites que exige el cumplimiento de lo dispuesto en aquella.

La ley regula el procedimiento de elaboración de las disposiciones generales, incluyendo en esa categoría tanto a las iniciativas reglamentarias como a los anteproyectos de ley. El tratamiento conjunto de ambos tipos de normas se ha considerado oportuno a pesar de la muy distinta posición que unas y otras ocupan en el ordenamiento jurídico y de que, en el caso de las leyes, el procedimiento administrativo sólo comprende la fase pre-

ren baitan; izan ere, Eusko Legebiltzarraren Araudiak arautzen du berez legegintza-ekimena dena.

Horrexegatik beragatik, administrazio-fasean gauzatu beharreko prozedurak eta prozedura hori goragoko arauen arabera den ikusteko azterketak arras malgu eta zabal izan behar dute. Osterantzean, formaren zorrozkeriak eta edukiaren aldetik izango lukeen murrizketak oztopatu egingo lukete hein handi batean legeak egiteko benetako prozedurak, legebiltzarrean gauzatzen denak, berezkoa duen eginkizuna.

Alabaina, lehenago esan dugun bezala, legegileak legegaren osiera aukeratzeko duen askatasunak ez du esan nahi eginkizun horretan batera mugarik ez duenik, ez eta erabakitze bere ahalmen hutsean babes har dezakeenik. Aitzitik, beste edozein herri-agintek bezala, arrazoi objektiboetan funtsatu behar du bere nahia, eta ez du arbitrarietatean erori behar. Gainera, arautu nahi duen errealitate horri egokitutako legeria egiten saiatu behar du. Horrexegatik, beharrezkoa da erregelamenduaren mailako xedapenentzako ezarritako metodologia bera ezartzea botere betearazlearen barruan egiten diren legetarako. Horrela legegintzako ahala duenaren eginkizuna erraztu egingo da, hobeto funtsatutako egitasmoak aurkeztuko baitzaizkio eztabaidarako eta erabakia hartzeko, helburuak iristeko egokiagoa eta fina goa den teknika juridikoaz artikuluka banatuak. Funts zehatzago eta ziurrago horren gainean dagokio Legebiltzarrari egitasmoak zuzendu eta onartzea.

III

Legeak, aplikazioari eta ez besteri begira, xedapen orokorraren kontzeptu juridiko-formal bat zehazten du, eta xedapenek antolamendu juridikora berrikuntza ekartzeko duten ahalmena nabarmentzen du kontzeptu horrek. Beraz, zedarriketa positiboak alde batera uzten ditu arauak izan dezakeen maila eta hartzen duen forma, eta, zedarriketa negatibo batekin osatzen da: zedarriketa negatibo horren arabera, bazterreraz uzten dira, berariaz, administrazio-egintza orokorrak edo aplikatuak izateko ondorengo beste egintza batzuk behar dituzten egintza arau-indarrak gabekoak, bai eta xedapen orokorren interpretazio eta aplikazioaren gaineko jarraibideak ere. Hala ere, jarraibide horiek ere sailetakoz zerbitzu juridikoen txostenaren izapidea igaro behar dute, tresna juridikoak direnez gero zuzen erabiltzen direla bermatze aldera. Era berean, txosten juridikoa egin beharko da kide anitzeko organoek beren barruko jardunbidea arautzeko onartutako erregelamenduen gainean ere.

Hemen arautzen den prozedurak erabaki formal bat eskatzen du hasiera-hasieratik, araua egitea bidezko denetza esango duena. Erabaki hori Jaurlaritzako kideei dagokie, berei dagokienez gero beren eskumenen esparruan, batzuetan, xedapen orokor hori behin betiko onartzea eta, besteetan, Jaurlaritzaren Kontseiluari onartzeko aurkeztea. Lege honetan ez da bereizketarik

via a la iniciación del procedimiento legislativo stricto sensu, cuya regulación está establecida en el Reglamento del Parlamento Vasco.

Este importante dato demanda que el procedimiento que se desarrolla en la fase gubernativa y el examen de su conformidad con las normas superiores goce de una gran flexibilidad y amplitud. De otro modo, el rigor formal y la limitación material de su contenido podría obstaculizar en gran medida la función propia del verdadero procedimiento de elaboración de las leyes, que es el que se desarrolla en sede parlamentaria.

Sin embargo, la libertad de configuración del legislador no significa, como ya se ha dicho, que carezca de límites, ni que el legislador pueda ampararse en el puro decisionismo. Por el contrario, como cualquier otro poder público, ha de fundamentar su voluntad en razones objetivas y no ha de incurrir en arbitrariedad. Asimismo, ha de procurar una legislación adecuada a la realidad que pretenda normar. Por eso, es preciso aplicar a la redacción de las leyes en el seno del ejecutivo la misma metodología que a las disposiciones reglamentarias. De ese modo se contribuye muy positivamente a facilitar la labor del titular de la potestad legislativa, pues se le presentan para su discusión y decisión unos proyectos mejor fundados y articulados, con una técnica jurídica más depurada y apropiada para alcanzar los objetivos que se propone. Sobre esa base más precisa y segura corresponde a la Cámara parlamentaria su enmienda y aprobación.

III

La ley define, a los exclusivos efectos de su aplicación, un concepto jurídico-formal de disposición de carácter general que pone el acento en la capacidad innovadora del ordenamiento en vigor que la distingue. La delimitación positiva prescinde, por lo tanto, del rango y la vestidura formal, y se completa con una delimitación negativa que excluye expresamente a los actos administrativos genéricos o susceptibles de ser aplicados por otros posteriores, pero que carecen de fuerza normativa, y a las instrucciones sobre la interpretación y aplicación de las disposiciones de carácter general. No obstante, se prevé la sujeción de estas últimas al trámite de informe de los servicios jurídicos departamentales a fin de garantizar la correcta utilización de ese instrumento jurídico. Igualmente, se someten a informe jurídico los reglamentos que aprueben los órganos colegiados para regular su funcionamiento interno.

La ordenación del procedimiento exige desde su mismo inicio una decisión formal sobre la pertinencia de la elaboración de la norma. Tal decisión se atribuye a las personas que son miembros del Gobierno, pues es a ellas, en sus ámbitos respectivos de competencia, a quienes corresponde en unos casos la aprobación definitiva, y en otros su presentación ante el Consejo de Gobier-

egiten lege-mailako xedapenen eta erregelamendu-mailako xedapenen artean, eta, hortaz, arauak egiteko eredu orokor bat hartu da, lausoa edo ministeriala. Eredu hori oso bat dator Jaurlaritzaren antolaketa-moduarekin eta Administrazioaren sailkako egiturekin, Estatutuari jarraituz Jaurlaritzaren Legeak hartutakoarekin, alegia.

Lege honen arabera, arauak egiten hasteko erabakia ez da betekizun formal huts bat, baizik eta garrantzi juridiko eta politiko handia duen egintza bat, arauaren beharrezan eta bideragarritasunaren gainean gutxieneko gogoeta behar duen egintza bat, alegia. Horrexegatik, arauaren edukia finkatzen eragina izango duten eraguztietako aldagaiak kontuan hartzea eskatzen du (azterlanak, txostenak, entzunaldiak, kontsultak, negoziazioak, eta abar); orobat, araua indarrean sartzeko gutxi gorabehera zer kostu ekarriko duen eta zer eraginkortasun izango duen kalkulatzeko eskatzen du, ez bakarrik herri-administrazioei begira, baita herritarrei eta eskuarki ekonomiari ere. Beste herrialde batzuetako sistemetan egin duten antzera, noizbait Eusko Jaurlaritzak ere erabili dituen galdetegiak (checklisten) onartzeko aukera aintzat hartu da; horien bitartez, arauak idazteko ardura duten organoek aipatutako zehaztasun horiek guztiak baloratzeko modua izan dezakete.

Onartu ostean, araua egiten hasteko agindua arau egiteko langintza osoak jarraitu beharreko plan bihurtzen da, bai eta ezinbesteko erreferentzia ere, agindu horren emaitza izango den arau-egitasmoaren gainean egindako txostenen bitartez balorazio juridikoa egin ahal izateko.

Legeak, bereziki, entzunaldiaren izapidean jartzen du arreta, garrantzi handikoa baita egitekoa den arauak uki ditzakeen eskubide eta interesen berme den aldetik, bai eta arauketarekin asmatzearen berme den aldetik ere. Asmo horrekintxe, eta eskumenen antolamendua errespetatua izango dela bermatzeko nahiz erakundeen arteko lankidetzaren sustatzeko, egitekoa den arauak eragin diezaiekeen heinean beste herri-administrazio batzuei parte hartzen uzteko eta haiei kontsulta egiteko aukera ere aintzat hartzen da berariaz.

Orobat, prozedura bakoitzaren gaineko espedientearen agertu behar duten agiriak ere aipatzen ditu, eta jarduketaren guztien eta haien emaitzen gaineko memoria bat eransteko betebeharra ere ezartzen du. Memoria ekonomiko bat aurkezteko betebeharra nabarmentzen da, proiektatutako arauak gutxi gorabehera izan dezakeen kostua kalkulatzeko izan ohi duen garrantziarengatik.

Horrez gain, kasu bakoitzean aplikatzekoa den legeriaren arabera nahitaezkoak diren txosten eta irizpenak eska eta eman daitezkeen galdegiten du lege honek.

Ondoren, arauaren onarpena arautzen da, eta onarpen horretarako aurkeztu behar diren agiriak zehazten dira, onartzeko erabaki horretarako behar diren irizpenosagai guztiak eskura egon daitezkeen.

No se distingue, según se ha avanzado, entre disposiciones legislativas y reglamentarias, por lo que se adopta con carácter general un modelo difuso o ministerial de elaboración de las normas. Modelo plenamente coherente con la organización del Gobierno y la estructura departamentalizada de la Administración que, de acuerdo con el Estatuto, acoge la Ley de Gobierno.

La decisión de iniciar la elaboración de las normas no se concibe como una mera formalidad, sino como un acto de gran trascendencia jurídica y política que ha de basarse en una mínima reflexión sobre la necesidad y viabilidad de aquéllas. Por eso, se exige que tenga en cuenta los condicionamientos de toda clase (estudios, informes, audiencias, consultas, negociaciones, etc.) que puedan incidir en la fijación de su contenido, y una estimación del coste y eficacia de su puesta en vigor no sólo en relación con las Administraciones públicas, sino, también, para los ciudadanos y la economía en general. En la línea de otros sistemas comparados, se prevé la posibilidad ya ejercitada por el Gobierno Vasco de aprobar cuestionarios (listas de comprobación o checklisten) que permitan valorar todos esos extremos a los órganos encargados de redactar las normas.

Una vez aprobada, la orden de iniciación se constituye en el plan al que ha de ajustarse toda la tarea de elaboración normativa y en referencia necesaria para su valoración jurídica a través de los informes que se emitan acerca del proyecto normativo a que dé lugar.

La ley dedica especial atención al trámite de audiencia, debido a su importancia como garantía de los derechos e intereses que puedan quedar afectados por la futura norma y de acierto en la regulación. Con igual propósito, y con el afán de garantizar el respeto al orden de competencias y estimular la cooperación interinstitucional, se contempla específicamente la participación y consulta a otras Administraciones públicas en la medida en que pueda afectarles la norma objeto de elaboración.

También se ocupa de los documentos que han de obrar en el expediente relativo a cada procedimiento, y se establece la obligación de que se acompañe de una memoria comprensiva de todas las actuaciones seguidas y de su resultado. Se hace hincapié en la inclusión de una memoria económica por la importancia que siempre tiene la estimación del coste que pueda generar la norma proyectada.

La ley exige, igualmente, que se soliciten y emitan los informes y dictámenes que sean preceptivos de acuerdo con la legislación aplicable a cada caso.

A continuación se regula la aprobación de la norma, y se determinan los documentos que en todo caso deben acompañarla para que tal decisión cuente con todos los elementos de juicio necesarios.

Legeen garrantzi berezia dela eta, lege-aurregitasmoak aztertze berariazko izapide bat ezarri da Jaur-laritzaren Kontseiluarentzat. Horren helburua da lege-gintzako ekimena erabili behar duen organoak, artikuluka banatutako testu bat aurrean izanez, legea egiteko prozeduraren planifikazioa bideratzea eta haren ardua bere gain hartzea, ondorengo entzunaldi-, kontsulta- eta txosten-izapideek ekar ditzaketan emaitzak gorabehera.

Xedapen berezietan presako kasuak aurreikusten dira, eta horrelako kasuetan erabil daitezkeen araubide arruntaren salbuespen eta modulazioak aipatzen dira, eta, gainera, argitu egiten dira izapideen izaera eta izapide horiek huts egiteak eragin ditzakeen baliogabetze-ondorioak.

Legearen azkeneko zatian arau substantiboen neurri osagarriak jasotzen dira, teknika juridikoaren arrazoiengatik artikuluen artean sartu ezin izan diren neurri osagarriak, alegia. Horrela, bada, Europar Batasunaren aurrean egin beharreko izapideak, kontsulta-organoak eta araugintza-teknikaren gaineko jarraibideak aipatzen dira. Izaera horretakoak dira xedapen iragankorra eta 1980ko urriaren 13ko Dekretutik indarrean zirauenaren indarririk gabe uztea.

Amaitzeko, azken xedapenetako lehenengoak xedapen orokorrak egiten direnerako beste eginbehar bat gehitzen du, xede hau duena: xedapen horien hartzaile izango direnei araututako gaiaren inguruan indarrean dagoen Zuzenbidea jakinaraztea. Modu horretan, segurtasun juridikoari laguntzen zaio, eta arauen kodifikazioaren ikuskera berri batek azkenaldi honetan egin dituen gisa horretako eskariei erantzuten zaie.

I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.— Helburua.

Lege honen helburua da xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzea.

2. artikulua.— Aplikazio-eremua.

Eusko Jaur-laritzak eta Euskal Autonomia Erkidego-ko Administrazioak egiten dituzten xedapen orokorrei ezarriko zaie lege hau. Lege-mailako arauetan bestelako berariazko prozedura bat ezarrita duten xedapen orokorrak prozedura horren arabera egingo dira; hala ere, lege honetan ezarritakoa aplikatuko da osagarri.

3. artikulua.— Kontzeptua.

1.— Lege honen ondorioetarako, xedapen orokorrak dira, edozein gairen gainekoak izanik ere, antolamendu juridikora berrikuntzak dakartzaten arau juridikoak dauzkaten xedapenak eta lege, legegintza-dekretu, dekretu edo aginduaren forma hartzen dutenak.

Dada la especial relevancia de las leyes, se ha previsto con respecto a ellas un trámite específico de toma en consideración por el Consejo de Gobierno de los anteproyectos de ley. Su finalidad es que el órgano que ha de ejercer la iniciativa legislativa asuma y oriente la planificación ulterior del procedimiento de elaboración a la vista de un texto ya articulado y sin perjuicio de las modificaciones que resulten de los trámites de audiencia, consulta e informe posteriores.

Entre las disposiciones especiales se prevén los supuestos de urgencia, se señalan las excepciones y modulaciones del régimen ordinario que cabe aplicar en tales casos, y se aclara el carácter de los diversos trámites y los efectos invalidantes que la omisión de los mismos pueda tener.

La parte final de la ley contiene las medidas complementarias de la regulación sustantiva que, por razones de técnica jurídica, no es posible incluir en el articulado. Así, las referencias a los trámites que deban efectuarse ante la Unión Europea, a los órganos consultivos y a las directrices de técnica normativa. Análogo carácter tienen la disposición transitoria y la derogación, en lo que sigue en vigor, del Decreto de 13 de octubre de 1980.

Por último, la disposición final primera contiene un mandato destinado a procurar que la elaboración de las disposiciones de carácter general incorpore como tarea adicional la facilitación a los destinatarios de las mismas del conocimiento del Derecho vigente en las materias reguladas. De esa manera, se contribuye a la seguridad jurídica y se responde a las demandas que en los últimos tiempos vienen formulándose en tal sentido desde una nueva concepción sobre la codificación normativa.

CAPÍTULO I DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.— Objeto.

La presente ley tiene por objeto el procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general.

Artículo 2.— Ámbito de aplicación.

Esta ley se aplica a las disposiciones de carácter general que elaboran el Gobierno Vasco y la Administración de la Comunidad Autónoma. Aquellas que tengan establecido en normas con rango de ley un procedimiento de elaboración específico se elaborarán conforme a éste, sin perjuicio de la aplicación supletoria de lo establecido en esta ley.

Artículo 3.— Concepto.

1.— A los efectos de esta ley, se entiende por disposiciones de carácter general las que, cualquiera que sea la materia sobre la que versen, contengan normas jurídicas que innoven el ordenamiento jurídico y adopten la forma de ley, decreto legislativo, decreto u orden.

2.– Ez dira halakotzat joko hartzaile-multzo zehatzei edo zehaztu daitezkeenei eragiten dieten administrazio-egintza orokorrak, behin aplikatuta agortzen direnak, edo edukia administrazio-egintza orokor horietan zeharo zehaztuta dakarten beste betearazpen-egintza batzuk eragiten dituztenak, nahiz eta batzuk eta besteak organo berek emanak izan eta xedapen orokorren forma berbera hartu.

3.– Kanpoan gelditzen dira xedapen orokorren aplikazioa errazteko ematen diren jarraibideak; hala ere, jarraibide horiei 7.3 artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko zaie.

4.– Kide anitzeko organoek beren barne-jardunbidea arautzeko onartutako erregelamenduen gainean, 7.3 artikuluan ezarritako txosten juridikoa egin beharko da.

II. KAPITULUA PROZEDURA

LEHENENGO ATALA. HASTEAK

4. artikulua.– Organo eskuduna.

1.– Xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko da. Legeak hala agintzen duenean, edo xedapen orokor horien gaiaren gainean sailburu bik edo gehiagok eskumen zuzena dutenean, agindua guztiak batera eman beharko dute.

2.– Baldin eta, xedapen orokorrak egiteko prozedura hasi eta gero, premia ikusten bada beste sail batzuek ere parte har dezaten, egitekoak diren xedapen horiek sail horien eskumeneko gaitetan eragina izan dezaketelako, sail horiek ere prozeduran parte hartuko dute, eta, ahal den neurrian, une horretara arte egindako jarduketak mantendu egingo dira.

5. artikulua.– Prozedura hasteko agindua.

1.– Prozedura hasteko aginduan, egitekoa den arauaren gaia eta helburua aipatuko dira labur-labur, eta alderdi hauen guztien gaineko irizpen bat ere izango da: arauaren bideragarritasun juridiko eta materiala; antolamendu juridikoan izango duen eragina, gai beraren gainean indarrean dauden beste arauen artean berariaz edo zeharka aldaketa jasango dutenak adieraziz, eta arau horrek ukituko dituen herri-administrazioen aurrekontuetan izango duen eragina, arautuko duen gai horretan izango duen eragina nahiz dena delako jarduera-esparru horretan izango duena. Era berean, gaia eta proposatuko den arauetaren edukia dela-eta bidezko irizpideren izapide eta txostenak zehaztu beharko dira, eta, behar balitz, xedapenak Europar Batasunean izapideren bat igaro behar duen edo ez.

2.– Eusko Jaurlaritzak, beharrezko diren betekizun eta izapideak hobeto betetzearren, xedapen orokorrak egiteko prozeduraren galdetegiak onartu ahal izango ditu.

2.– No tienen tal consideración los actos administrativos genéricos que afecten a una pluralidad de destinatarios determinados o determinables, que se agoten con una sola aplicación, o que den lugar a otros actos de ejecución cuyo contenido esté completamente predeterminado por aquéllos, aunque emanen de los mismos órganos y revistan la misma forma que las disposiciones de carácter general.

3.– Quedan excluidas las instrucciones que se dicten a fin de facilitar la aplicación de disposiciones de carácter general, si bien les será de aplicación lo previsto en el artículo 7.3.

4.– Los reglamentos que aprueben los órganos colegiados para regular su funcionamiento interno serán objeto del informe jurídico establecido en el artículo 7.3.

CAPÍTULO II PROCEDIMIENTO

SECCIÓN PRIMERA. INICIACIÓN

Artículo 4.– Órgano competente.

1.– El procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general se iniciará por orden del Consejero o Consejera titular del Departamento competente por razón de la materia sobre la que versen. Cuando así se establezca mediante ley, o cuando se trate de materias en las que disponen de atribución competencial directa dos o más Consejeros o Consejeras, la orden será conjunta.

2.– Si en el transcurso del procedimiento de elaboración se aprecia la necesidad de participación de otros Departamentos, en virtud de la incidencia que pudiera tener en materias de su competencia, éstos se incorporarán al procedimiento conservándose, en la medida de lo posible, las actuaciones realizadas hasta ese momento.

Artículo 5.– Orden de iniciación.

1.– La orden de iniciación expresará sucintamente el objeto y finalidad de la norma, y contendrá una estimación sobre su viabilidad jurídica y material; sus repercusiones en el ordenamiento jurídico, con indicación de las normas vigentes sobre el mismo objeto que resulten modificadas de forma explícita o implícita, y la incidencia en los presupuestos de las Administraciones públicas afectadas, en la materia concernida y, en su caso, en el sector de actividad de que se trate. Asimismo, señalará los trámites e informes que se estiman procedentes en razón de la materia y el contenido de la regulación propuesta, y, en su caso, si la disposición ha de ser objeto de algún trámite ante la Unión Europea.

2.– A fin de facilitar un mejor cumplimiento de los requisitos y trámites precisos, el Gobierno Vasco podrá aprobar cuestionarios de elaboración de las disposiciones de carácter general.

BIGARREN ATALA. INSTRUKZIOA.

6. artikulua.— Xedapen orokorrak egiteko arau eta irizpideak

1.— Prozedura hasteko aginduaren edukari jarraituz idatziko dira xedapen orokorrak, eta arauketa-aukera hauek hartuko dira aintzat: ondoen egokitzen zaizkienak bai lortu nahi diren helburuei bai eta egin nahi den arauketaren zuzentasuna eta legezketasuna bermatzearen komenigarri iritzitako kontsultek izandako emaitzei.

2.— Xedapen orokorra egiteko bide horretan, beharrezko diren azterlan eta txostenak egingo dira, eta, bereziki, arauen gauzagarritasun eta kostuaren gainekoak.

7. artikulua.— Aldez aurreko onarpena eta aldez aurreko instrukzio-izapideak

1.— Xedapen orokorren egitasmoak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak aldez aurreko onarpena eman beharko die, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik.

2.— Lan-baldintzen gaineko eta funtzio publikoaren legeriak zehaztutako gai jakin batzuen gaineko arau-egitasmoak langileen ordezkariekin negoziatu beharko dira, edo kontsulta egin beharko zaie haiei, dagokion legeriak ezarritako gai-eremuen arabera.

3.— Betiere, prozeduraren instrukzioa egin duen sailleko zerbitzu juridikoak txosten juridiko bat egin beharko du alderdi hauek aztertzeko: egitekoa den arauaren funts objektiboa zein den, haren edukia Legearen eta Zuzenbidearen arabera den eta araugintza-tekNIKAREN jarraibideak bete diren, baldin eta halakorik balego.

8. artikulua.— Entzunaldia eta jendaurrean jartzea.

1.— Herritarren eskubide eta bidezko interesei eragiten dieten xedapen orokorrek entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute. Era berean, xedapenen izaerak hala eskatzen badu, jendaurrean jarri beharko dira.

2.— Herri-interesak eskatzen duenean baino ezingo da utzi alde batera entzunaldiaren izapidea, eta herri-interes hori egiaztatu egin beharko da kasuan-kasuan.

3.— Interesdunei zuzenean entzunez egingo da entzunaldia, edo, interesdun horiek biltzen edo ordezkartzen dituzten erakunde eta elkarteei entzunez; erakunde eta elkarte horiek legeak onartutakoak izan behar dute, eta haien helburuek lotura zuzena izan behar dute xedapenaren gaiarekin. Dena den, arrazoitu egin beharko da izapide hori betetzeko aukeretan bata edo bestea hartu izana.

Aipatutako erakunde edo elkarte horiek organoen bidez edo txosten edo berriazko kontsulten bidez parte hartzen badute araua egiteko prozesuan, ez da beharrezkoa izango interesdunei zuzenean entzunaldia ematea.

4.— Entzunaldia, eta, hala behar balitz, jendaurrean jartzea, arrazoizko epe baten barruan egingo da, inolaz

SECCIÓN SEGUNDA. INSTRUCCIÓN

Artículo 6.— Reglas y criterios de elaboración.

1.— La redacción de las disposiciones de carácter general se realizará atendiendo al contenido de la orden de iniciación, teniendo en cuenta las opciones de regulación que mejor se acomoden a los objetivos perseguidos, y al resultado de las consultas que se estimen convenientes para garantizar el acierto y legalidad de la regulación prevista.

2.— En el curso de su elaboración se efectuarán los estudios e informes que sean precisos y, en particular, los relativos a la factibilidad de las normas y a su coste.

Artículo 7.— Aprobación previa y trámites de instrucción previos.

1.— Una vez redactados los proyectos de disposición de carácter general, deberán contar con la aprobación previa por el órgano que haya dictado la orden de iniciación, antes de evacuar los trámites de negociación, audiencia y consulta que procedan.

2.— Se negociarán o consultarán con los representantes de personal, según los ámbitos materiales que establece la legislación correspondiente, los proyectos normativos sobre condiciones de trabajo y los que determine la legislación de función pública.

3.— En todo caso, se emitirá por el servicio jurídico del Departamento que haya instruido el procedimiento un informe jurídico en el que se analice su fundamento objetivo, la adecuación de su contenido a la Ley y al Derecho y la observancia de las directrices de técnica normativa que, en su caso, se establezcan.

Artículo 8.— Audiencia e información pública.

1.— Las disposiciones de carácter general que afecten a los derechos e intereses legítimos de los ciudadanos y ciudadanas serán objeto del trámite de audiencia. Asimismo, y cuando la naturaleza de las disposiciones lo aconseje, se someterán a información pública.

2.— Sólo podrá prescindirse del trámite de audiencia cuando lo exija el interés público, que habrá de acreditarse en cada caso.

3.— La audiencia se realizará directamente o a través de las organizaciones y asociaciones reconocidas por la ley que agrupen o representen a los ciudadanos afectados y cuyos fines guarden relación directa con el objeto de la disposición. La opción por una u otra modalidad de cumplimiento del trámite será motivada.

No será precisa la audiencia a las personas interesadas cuando las organizaciones y asociaciones mencionadas participen orgánicamente o por medio de informes o consultas específicas en el proceso de elaboración.

4.— La audiencia, y, en su caso, la información pública, se efectuará durante un plazo razonable y no inferior a veinte días hábiles. No obstante, se podrá re-

ere ez hogeie egun baliodun baino gutxiagoko epean. Hala ere, hamar egun baliodunera murriztu ahal izango da gutxieneko epea, behar bezala arrazoitutako zioak direla-eta bidezko bada.

5.– Ez dute izapide hori igaro beharko Jaurlaritzaren organoak, karguak eta agintariak arautzen dituzten xedapenek, ez eta Autonomia Erkidegoko Administrazioaren edo haren menpeko edo hari atxikitako erakundeen xedapen organikoek ere, non eta ez duten arautzen herritarrek Administrazioaren eginkizunetan edukiko duten parte-hartzea.

9. artikulua.– Beste administrazio batzuek parte hartzea edo haiei kontsulta egitea.

1.– Xedapen orokorrak egiteko prozeduran parte hartzeko aukera emango zaie egitekoa den arauketak zuzen-zuzenki eragiten dien Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioei.

2.– Parte-hartzea mailakatu egingo da eta egitekoa den xedapenak gainerako administrazioen eskumen eta jarduketetan duen eraginaren arabera gauzatuko da. Beterie, egitasmoaren testua helarazi beharko zaie, eta parte-hartzea alegazioak aurkezteko epe bat irekita ere gauzatu ahal izango da, edo txostenak emanaz.

3.– Kontsulta-organoetan parte hartze hutsak edo gai jakin batean aholku teknikoa emateak ezin du kontsultaren izapidea ordezkatu, non eta horrelako parte-hartzearen funtsa ez den hain zuzen ere bakoitzaren eskumen eta interesak babestea, edo non eta organo horiek esku hartuta ez den parte-hartze hori zinez gauzatzeko.

HIRUGARREN ATALA. ONARTZEA

10. artikulua.– Espedientea eta memoria.

1.– Espedienteari, prozedura hasteko aginduarekin eta dagokien agiriarekin batera, egindako azterlanak eta kontsultak gehituko zaizkio.

2.– Orobat, prozedura osoaren memoria labur bat erantsiko zaio espedienteari, eta, hor, hauek guztiak zehaztuko dira: aurrekariak, egindako izapideak, izapideen emaitzak eta, egindako txostenen ohar eta iradokizunei egokitzearen –batez ere nahitaezko txostenetan egindakoei–, proiektuaren testuan sartutako aldaketak. Behar besteko zehaztasunez arrazoituko da zergatik ez diren onartu txosten horietan egindako oharrak, eta zehatz-mehatz arrazoituko da, orobat, azkenean erabakitako testua zergatik den antolamendu juridikoaren araberrakoa.

3.– Era berean, espedienteak memoria ekonomiko bat edukiko du, eta, hor, egitekoa den arauaren kostuaren zenbatespena azalduko da: gastu eta diru-sarrerak zenbatuta agertuko dira, eta, orobat, herri-administrazioaren aurrekontuetan izango duen eragina, finantzaketa-iturri eta -erak nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ekonomia- eta araudi-kontrolaren gaineko arauak zehaztutako beste alderdi batzuk.

ducir hasta el mínimo de diez días hábiles cuando razones debidamente motivadas así lo justifiquen.

5.– Quedan exceptuadas de este trámite las disposiciones que regulan los órganos, cargos y autoridades del Gobierno, así como las disposiciones orgánicas de la Administración de la Comunidad Autónoma o de las organizaciones dependientes o adscritas a ella, salvo que se refieran precisamente a la participación de la ciudadanía en las funciones de la Administración.

Artículo 9.– Participación y consulta a otras Administraciones.

1.– Se dará participación en el procedimiento de elaboración de las disposiciones generales a las Administraciones de la Comunidad Autónoma que puedan resultar afectadas directamente por la regulación prevista.

2.– La participación se graduará y se realizará en función de la incidencia en las competencias o en la actuación de las demás Administraciones. Conllevará, en todo caso, la remisión del texto del proyecto, y podrá consistir en la apertura de un plazo para la formulación de alegaciones o en la emisión de informes.

3.– La simple participación en órganos consultivos o de asesoramiento técnico en una determinada materia no sustituye al trámite de consulta, salvo que tal participación tenga como fundamento precisamente la salvaguarda de las competencias e intereses respectivos o se verifique materialmente con ocasión de la intervención de dichos órganos.

SECCIÓN TERCERA. APROBACIÓN

Artículo 10.– Expediente y memoria.

1.– Se incorporarán al expediente, junto a la orden de iniciación y documentación correspondiente, los estudios y consultas evacuados.

2.– Se unirá, asimismo, una memoria sucinta de todo el procedimiento, en la que se reseñarán los antecedentes, los trámites practicados y su resultado y las modificaciones realizadas en el texto del proyecto para adecuarlo a las observaciones y sugerencias de los diferentes informes evacuados, y de manera especial las contenidas en los de carácter preceptivo. Se justificarán con suficiente detalle las razones que motiven la no aceptación de las observaciones contenidas en tales informes, así como el ajuste al ordenamiento jurídico del texto que finalmente se adopte.

3.– En el expediente figurará, igualmente, una memoria económica que exprese la estimación del coste a que dé lugar, con la cuantificación de los gastos e ingresos y su repercusión en los Presupuestos de la Administración pública, las fuentes y modos de financiación, y cuantos otros aspectos se determinen en la normativa que regule el ejercicio del control económico-normativo en la Administración de la Comunidad Au-

Egitekoa den arau horren aplikazioak beste herri-administrazio batzuei, banakoei eta oro har ekonomiari ekarriko dion kostua ere neurtuko du.

11. artikulua.– Nahitaezko txostenak eta irizpenak.

Nahitaezko txostenak eta kontsulta-organoen irizpenak izapide hori arautzen duten xedapenek ezarritako unean eta eran eskatuko dira.

12. artikulua.– Behin betiko onarpena.

1.– Ezarritako prozedura amaitutakoan, xedapen orokorra eskudun organoari aurkeztuko zaio onar dezan, eta harekin batera zioen adierazpena ere bai, xedapen hori egiteko zioak eta haren helburua labur-labur adieraziz. Eranskinean, hala dagokionean, indarrrik gabeko utzitako edo aldatutako xedapenen zerrenda agertuko da.

2.– Era berean, beste hauek ere erantsiko zaizkio: emandako nahitaezko txostenak, 10. artikuluan aurreikusitako memoriak eta xedapenaren beharraz eta egiteko egokitasunaz iritzia emateko beharrezkoak diren aurrekariak.

III. KAPITULUA XEDAPEN BEREZIAK

13. artikulua.– Lege-aurregitasmoen onarpena.

Lege-aurregitasmoak Jaurlaritzaren Kontseiluari aurkeztuko zaizkio, azter ditzan; aztertzen diren bilkuran bertan erabakiko du haiek behin betiko onartu edo ez, edo, bestela, azken idazketa egiteko kontuan hartu beharko diren irizpideak ezarriko ditu, bai eta, hala ballegokio, behin betiko onartu bitarteko bidean egin beharreko jarduketak ere.

14. artikulua.– Presa.

Behar bezala egiaztatutako presazko arrazoiak direla-eta ezin bada bete xedapen orokorraren gaia arautzen duten arauak aurreikusitako prozedura-izapideren bat, badago, arrazoiak emanez, izapide horiek alde batera uztea, non eta lege-mailako arauak edo lege-indarra dutenek ez dituzten izapide horiek nahitaez eskatzen.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– Europar Batasunean egin beharreko izapideak.

Lege honetan aurreikusitako prozeduran sartzen dira Europar Batasuneko Zuzenbideak eskatuta Batasuneko organoek edo organoetan egin beharreko izapideak. Izapide horiek arautzen dituzten arauetan egongo dira ezarrita izapide horiek egiteko unea, haien forma eta eragingo dituzten ondorioak.

Bigarrena.– Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena.

tónoma de Euskadi. También evaluará el coste que pueda derivarse de su aplicación para otras Administraciones públicas, los particulares y la economía general.

Artículo 11.– Informes y dictámenes preceptivos.

Los informes preceptivos y los dictámenes de los órganos consultivos se solicitarán en el momento y en la forma que determinen las disposiciones que regulan dicho trámite.

Artículo 12.– Aprobación final.

1.– Una vez ultimado el procedimiento establecido, la disposición general se someterá a la aprobación del órgano competente acompañada de la exposición de motivos, en la que se expresarán sucintamente aquellos que han dado origen a su elaboración y la finalidad perseguida. Figurará como anexo, cuando proceda, la relación de disposiciones derogadas o modificadas.

2.– Asimismo, se adjuntarán los informes preceptivos emitidos, las memorias previstas en el artículo 10 y los antecedentes precisos para pronunciarse sobre la necesidad y oportunidad de la disposición.

CAPÍTULO III DISPOSICIONES ESPECIALES

Artículo 13.– Aprobación de los anteproyectos de ley.

Los anteproyectos de ley se someterán a la toma en consideración del Consejo de Gobierno, que decidirá sobre su aprobación final en la misma sesión, o bien establecerá los criterios que hayan de tenerse en cuenta en su redacción final y las actuaciones que, en su caso, hayan de seguirse en su tramitación ulterior hasta dicha aprobación.

Artículo 14.– Urgencia.

Cuando por razones de urgencia debidamente acreditadas no sea posible cumplimentar alguno de los trámites procedimentales previstos en las normas reguladoras de las materias objeto de la disposición general se podrá prescindir, motivadamente, de los mismos, salvo que vengan exigidos como preceptivos por normas con rango o fuerza de ley.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.– Trámites ante la Unión Europea.

Se integran en el procedimiento previsto en esta ley los trámites que deben realizarse ante o por órganos de la Unión Europea en virtud de lo dispuesto en el Derecho comunitario. El momento, la forma y los efectos que de los mismos se deriven serán los establecidos en las normas que los regulan.

Segunda.– Dictamen de la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco.

Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoaren txostena eskatu eta emateko, Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoa sortu eta arautzen duen Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 13ko 187/1999 Dekretuan ezarritakoari jarraituko zaio, aldatzen edo ordezkatzeko ez den artean.

Hirugarrena.— Araugintza-teknikako jarraibideak.

Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak Jaurlaritzaren Kontseiluaren 1993ko martxoaren 23ko Erabakiaren bidez onartu ziren jarraibideen arabera egingo dituzte xedapen orokorrak (erabakia, urte horretako apirilaren 6ko Agindua bitartez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren apirilaren 19ko alean argitaratu zen, 71. zenbakian), jarraibide horiek lege honetako 5.2 artikuluan aurreikusitako galdetegien bidez aldatzen edo beste batzuekin ordezkatzeko ez diren bitartean.

Laugarrena.— Foru-aldundiek xedapen orokorrak egitea

Lurralde historikoetako foru-aldundiek beren antolamendu-, araubide- eta jardunbide-arauen arabera egingo dituzte beren xedapen orokorrak. Hala ere, lege honetan jasotako arauketaren printzipioak aplikatuko zaizkie haiei ere, beren arauen ezaugarri diren berezitasun formal eta materialen arabera.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Lege hau indarrean sartu aurretik hasitako prozedurak lehengo araudiaren arabera izapidetuko dira amaitu arte.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Eusko Jaurlaritzak onartu beharreko lege-egitasmo eta dekretuak egiteko barne-prozedura onartu zuen 1980ko urriaren 13ko Dekretutik indarrean zirauea indarririk gabe uzten da; indarririk gabe uzten da, orobat, lege honetan xedatutakoaren aurka doan xedapen oro.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.— Indarrean diren xedapenak eguneratzea.

Arauk hobeto ezagut eta zuzenki aplikatu daitezela bermatzeko aldera, Eusko Jaurlaritzak indarrean diren xedapenen testu eguneratuak argitaratuko ditu, eta jasan dituzten aldaketa eta indargabetzeen arrazoiak diren arauak zehaztuko dira bertan. Argitarapen hori egiteko, bitarteko teknikoek aukera ematen duten neurrian, euskarri informatikoak eta arauen aplikazio-eremuan hedapenik handiena eragin dezaketeko telematika-sareak erabiliko dira.

Bigarrena.— Erregelamendu bidezko garapena.

La solicitud y emisión del dictamen de la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco se ajustará, en tanto no sea modificado o sustituido, a lo establecido en el Decreto 187/1999, de 13 de abril, por el que se crea y regula la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco.

Tercera.— Directrices de técnica normativa.

La elaboración de disposiciones de carácter general por el Gobierno y la Administración de la Comunidad Autónoma se realizará, en tanto no se modifiquen o sustituyan a través de los cuestionarios de elaboración previstos en el artículo 5.2, de acuerdo con las directrices aprobadas mediante el acuerdo del Consejo de Gobierno de 23 de marzo de 1993, publicadas por Orden de 6 de abril del mismo año en el Boletín Oficial del País Vasco de 19 de abril (n.º 71).

Cuarta.— Elaboración de disposiciones generales por las Diputaciones forales.

Las Diputaciones forales de los respectivos territorios históricos elaborarán las disposiciones de carácter general de acuerdo con sus propias normas de organización, régimen y funcionamiento. No obstante, les serán de aplicación los principios que derivan de la regulación contenida en esta ley, en función de las especificidades formales y materiales que caracterizan sus normas.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Los procedimientos iniciados con anterioridad a la entrada en vigor de la presente ley se tramitarán hasta su conclusión de acuerdo con la normativa anterior.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado, en lo que se mantenga en vigor, el Decreto de 13 de octubre de 1980, por el que se aprueba el procedimiento interno de elaboración de proyectos de ley y los decretos que han de ser aprobados por el Gobierno Vasco, así como cuantas disposiciones se opongan a lo dispuesto en esta ley.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.— Actualización de las disposiciones vigentes.

A fin de garantizar el mejor conocimiento y facilitar la correcta aplicación de las normas, el Gobierno Vasco publicará textos actualizados de las disposiciones vigentes en los que se señalarán las normas de las que traigan causa las modificaciones y derogaciones que hayan sufrido. Dicha publicación se realizará, en la medida en que los medios técnicos lo permitan, en soporte informático y a través de las redes telemáticas que procuren una mayor difusión en el ámbito espacial de aplicación de las normas.

Segunda.— Desarrollo reglamentario.

Baimena ematen zaio Eusko Jaurlaritzari lege hau garatu eta ezartzeko beharrezko diren xedapenak eman ditzan.

Hirugarrena.– Indarrean sartzea.

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteizen emana, 2003ko abenduaren 22a.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Zk-7118

6/2003 LEGEA abenduaren 22koa, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuarena.

Eusko Legebiltzarrak ondoko legea onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei.

ABENDUAREN 22KO 6/2003 LEGEA,
KONTSUMITZAILEEN ETA ERABILTZAILEEN
ESTATUTUARENA

ZIOEN AZALPENA

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babesa gure ordenamenduko hierarkia-mailarik gorenean jarri zen, botere publikoek bermatu beharrezko gizarteko eta ekonomiako politikaren printzipio gidari nagusietako bat bezala, eta, orobat, babes hori Zuzenbideko printzipio orokor gisa karakterizatu zen, esan nahi baita, legeria positiboak, praktika judizialak eta botere publikoen jardunak aintzat hartuko dutela kontsumitzaileen eta erabiltzaileen errespetua eta babesa. Autonomia Erkidegoak kontuan izan zuen hori guztia bere eskumenen esparruan lehenengo autonomia-araua (Bezeroaren Araudiaren azaroaren 18ko 10/1981 Legea) eman zuenean; arau horren bidez, esparru orokor bat ezarri zuen kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak babesteko. Lege hori erregelamendu bidez garatu da, eta maila praktikoko hainbat jarduerari bide eman die.

Araua eman zen garaian, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babesa gai berria zen eta, hartara, zehaztu gabe zeuden bere eduki doktrinalak eta jurisprudentzia-koak, eta, halaber, finkatu gabe zeuden autonomia-erkidegoen eskumenen mugak. Hori dela-eta, legegileak arau programatiko bat egin behar izan zuen; baina, ha-

Se autoriza al Gobierno a dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y aplicación de la presente ley.

Tercera.– Entrada en vigor.

Esta ley entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Dada en Vitoria-Gasteiz, a 22 de diciembre de 2003.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Nº-7118

LEY 6/2003, de 22 de diciembre, de Estatuto de las Personas Consumidoras y Usuarias.

Se hace saber a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente Ley.

LEY 6/2003, DE 22 DE DICIEMBRE, DE ESTATUTO
DE LAS PERSONAS CONSUMIDORAS
Y USUARIAS

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La consagración de la protección de las personas consumidoras y usuarias al más alto nivel en la jerarquía normativa de nuestro ordenamiento como uno de los principios rectores de la política social y económica que los poderes públicos deben garantizar y su caracterización como un nuevo principio general del Derecho, en el sentido de que su respeto y protección informarán la legislación positiva, la práctica judicial y la actuación de los poderes públicos, fue tenida en cuenta por la Comunidad Autónoma para, en el ámbito de su competencia, dictar la primera norma autonómica que establecía un marco general para la protección de los derechos de las personas consumidoras y usuarias, la Ley 10/1981, de 18 de noviembre, del Estatuto del Consumidor. Esta ley ha sido desarrollada reglamentariamente y ha dado lugar a diferentes actuaciones de orden práctico.

Dicha norma fue dictada en un tiempo en que la materia de defensa de las personas consumidoras y usuarias, por su propia novedad, no se había perfilado, ni doctrinal ni jurisprudencialmente, en sus contenidos, ni tampoco en la fijación de los límites competenciales autonómicos, obligando al legislador a la elaboración